

Noaia!!

www.noaia.com



*Julian Txikiren argazki
gehiago azaldu dira*



San Silvestre herri lasterketan

kirola eta umorea bat eginik



Hou la la!

Meilleurs vœux,
bonne année
et bonne santé!

ANIMA ZAITEZ!!!

609 75 47 99 Usurbil

FRANTSES KLASEAK

- Frantzia oso gertu dagoelako
- Profesionalki garrantzitsua
- Frantses pixkat bazenekien baina ahaztu bazaizu eta berreskuratu nahi baduzu...
- Jubilatuentzat ere klaseak

AUKERA EDERRA DAUKAZU!
URTARRILAREN 9an HASIKO GARA

Astean zehar ordutegi ezberdinak aukeran goizez edo arratsaldez

eta **aukera BERRIA!!!!**
ezin badezu klasera etorri...
eta zure maila ZERO edo GUTXI bada
INTERNET bidez ikasi,
(hilean behin aurkeztuta)



Aseguru Artekaritza

GESTORITZA ZERBITZUA JARRI DUGU!

Autoen esku-aldaketak, Garraio-txartelak...

SEGURO MOTA GUZTIAK, ESKATU AURREKONTUA!

- autoak ·etxeak ·bizi-aseguruak ·komunitateak ·merkataritza-dendak
- enpresak ·pentsio planak ·istripu aseguruak ·ontzi aseguruak

Albistea iruditan!

Uholdeen arrastoa garbitzen

Hilabetea pasa da uholdeak izan zirenetik. Denboralearen arrastoak oraindik nabariak dira erreka bazterretan. Uholdeak pasa ziren, baina lan asko dagoela egiteko oraindik. Horren aurrean, auzolanean aritzeko xedez, abenduaren 6rako egin zuten deia. Usurbil Zero Zabor taldeak eta ITAYA Gazte Asanbladak eginiko deialdi bateratuak 60 lagun ingururen parte hartzea ekarri zuen. Hilabete lehenago izandako uholdeek utzitako ibai ertze-ko zikinkeria garbitzen aritu ziren, Herria Garbi izeneko egunean. Irudian ikus daitekeenez, gogotik aritu behar izan zuten.



ERRIO BAZTERRAK GARBITZEN ARITU ZIREN ZERO ZABOR ETA ITAYAKOAK.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Urteko albisteaz hitz bi

Zaharrak ez zuen hil nahi liburua (Susa 2011) aurkeztu zen Zegunean zendu zen Muamar Gadafi. Gaizka Zabarteren nobelak badu ironiatik asko, pentsa, ehorzle bat da protagonistetako bat. Portzierto, laburra, arin irakurtzekoa, ederra nobela. Baina ez, ez du Gadafi hizpide. Eta Libiako matxinoek ez zuten liburuaren berri. Jakinda ere, zaharrak ez zuela hil nahi, uste dut berdin berdin akabatuko zutela.

Urriaren 20an izan zen. Liburuaren aurkezpena eta Gadafiren heriotza. Gurean, zeresan handiagoa eman zuen hirugarren albiste batek. ETak bere jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki baitzuen egun horretan bertan. Albistea jaso eta handik gutxira, ohiko inkesta izan zen ia hedabide gehienetan. *Albistearen berri izan zenuenean, zer pasa zitzaizun burutik?* Ba nik hainbat flash izan nituen, kolpe batean hiru irudi etorri zitzaizkidan burura.

Lehenik eta behin, etxekoekin akordatu nintzen. Amarekin bereziki. Biktimen zerrenda ofizial horretan azaltzen ez den horietako bat dugu etxean. Imanol izena jarri zidan osaba. Amaren anaia. Guardia Zibilaren kontrol batean eraila, 1977an. Horiek ez dituzte zenbaitzen. Baina hala ere, etxean ez digute errailetatik hitz egiten erakutsi.

Bigarrenik, espetxean daudenekin. Egunkaria auzia tarteko, Pello Zubiriari egin zitzaion ongi-etorrian izan nintzen, NOAUA!rako albistea jasotzen. 2003a zen. Gazte asko topatu zituen espetxean eta ongi-etorrian bota zuen esaldi bat iltzatuta geratu zitzaidan: "ekarri egin behar ditugu, ezin ditugu usteltzen utzi".

Hirugarrenik, Elkarriko garaiak etorri zitzaizkidan burura. Tolosa partean abiatu zen Elkarri eta giza mugimendu haren hastapen bile-retan izan ginen anaia eta biok. 18 urterekin edo. Helburu hauekin jaio zen: "elkarrizketa eta akordioaren alde, euskal gatazkari irtenbide baketsu eta elkarrizketatua emateko eredia aldarrikatu eta bultzatzeko sortua". Anitza, bere garaian 3.000 kidek eta 100 taller lokalek osatzen zuten Elkarri. Gero ikasketak, lana eta bestelako kontuetan murgildu ginen eta Elkarritik urruntzen joan ginen. Baina urriaren 20an, burura etorri zitzaizkidan Maxux Rekalde, Txema Auzmendi (Herri Irratian lankide izandakoa, hau ere Egunkaria auzian egurtua), Jonan Fernandez, Bittor Aierdi... Eta hedabideetan sekula agertu ez arren, isilean eta Elkarriren alde lanean aritu ziren horiek guztiak. Mesfidantza giroan abiatu zen Elkarri, 1992an. Akatsak ere egin ziren. Baina eskua altxa dezala orain eta hemen, azken urteotako bide malkartsuan uneoro zuzen ibili denak. Ez dira asko izango...

Orduko ahaleginak ez ziren alperrikakoak izan, ordea. Elkarriren oinordeko izan zen Lokarri eta, gutxi edo gehiago, denok dakigu zein garrantzitsua izan den Paul Riosek zuzentzen duen taldea azken hilabete hauetan.

Ez dituzte dominak nahi. Eta ez dituzte behar. Ez ziren horregatik Elkarriazale egin. Baina lerro hauekin sikiera, gogora ekarri nahi nituen. Jakin bedi.

Horrelakoetan, kolpe batean, nork bereak ditu gogoan. Eta nik hiru flash horiek izan nituen urriaren 20an.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Zertan da Zubietako erraustegia?

Iragan astean hiri hondakinen gaiak Gipuzkoan izango duen bilakaera baldintzatuko duten hainbat gertakari izan ziren. 38 alkateen (beste 20 gehitu dira ordu-tik) eta San Markoko lehendakariaren gutuna GHKren administrazio kontseiluari. Bertan gaikako bilketa eraginkorrago bat egiteko konpromisoa adierazten dute. Ondorioz, GHKren administrazio kontseiluak Hondakinen Partzuergoari errauste plantaren lanak kontratatzeko sei hilabetezko etenaldia baimentzeko eskaera egin zion. Azkenik, Gipuzkoako 2012ko aurrekontuetan izandako akordioan errauste plantarentzat sei hilabetezko luzamendua eta adostasuna bilatzeko prestatasuna.

Honek guztiak prentsan isla handia izan du, eta zenbait hedabide ezagunek ohikoa duten moduan jendea nahasteko erabili dute argitaratutakoa, herritarrek informatzeko baino. Horren harira gauzak zertan diren argitzea dagokigula uste dugu.

Gipuzkoako 88 udaletatik 60 inguruko

alkateek gaikako bilketa eraginkorra bultzatzeko konpromisoa azaldu dute. Hondakinak baliabide gisa eta ez zabor gisa hartzea dakar horrek. Zabor kopuruan jeitsiera handia ekarriko du.

Hiri hondakinen gaiari lotuta bi mailatako erakundek dauzkate eskumenak. Udalek hondakinen kudeaketa eta Batzar Nagusiek planifikazioa. Ez dauka zentzurik gaikako bilketa eraginkor bat egin eta hori kontuan hartuko ez duen planifikazio bat egitea. Beraz, hurrengo hilabeteak, planifikazioa, udalen erabakiak sortutako egoerari egokitu eta adosteko erabili beharko dira.

Gauzak horrela, geroz eta jende gehiagok Zero Zabor norabidearen ezagutza izanda, oso zaila izango dute "el periodiko" k eta ildo berean jarduten diren errausketazaleen txotxongiloek konponbide toxikoa defendatzea.

Egoera hau ez da kasualitatez eta ezerezitik heldu. Unerik etsigarrietan Zero Zabor norabidearen alde, bere denbora eta ahalegina eman duten herritarrek egin dute posible.

Muralak margotzen, argazkiak ateratzen, materiala saltzen, informatzen, proposamenak egiten, diruz laguntzen, flash mob bezalako ekimenak arrakastatsu egiten eta beste hainbat modutan laguntzen aritu direnek, egin dute posible honaino iristea. Eta bereziki, atez ateko hondakinen gaikako bilketa esperientziak errealitate egin dituzten herriak gogoratu behar dira.

Ezin dugu ahaztu ere, politikarien ospea lurraren pare dagoen honetan, hainbat erakundetan, izugarriko presioa jasanez, alternatibak martxan jarri eta aurrera atera dituzten arduradunak. Beraien ahalegin eta konpromisorik gabe ezin izango zelako gaur egun ireki den aukera paregabe hau baliatu.

Aukera lortu dugu. Baina aukera probestu ala alferrik galdu daiteke. Honaino ekarri gaituen ahalegin horrek eraman gaitzake arrakasta burutzera. Guztion beharra izango dugu beraz aurrera egiteko. Zorionak guztioi.

Usurbil Zero Zabor

Xabier Mikel Errekondok gatazka konpontzeko inplikazioa eskatu dio Erregeari

Abenduaren 15ean, hedabide-etako eguneko irudia izan zen Usurbilgo Udaleko alkate ohi Xabier Mikel Errekondo. Juan Carlos Borboikoa Errege espainolak Kongresu eta Senatu berrian ordezkaritza lortu zuten alderdi politikoeekin izandako errondaren baitan hartu zuen Errekondo. Gutun baten bidez, Usurbilgo alkate ohi eta egun Amaiur koalizioako bozeramaile denak, Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko eta bake egonkor, iraunkor eta justua lortzeko inplikazioa eskatu zion Juan Karlos Borboikoari.

Xabier Mikel Errekondo eta Juan Karlos Borboikoaren arteko bilera egu-

nean bertan, hilaren 15ean, talde parlamentarioa izateko eskaera erregistratu zuen Amaiurrek. Erantzuna gauetan ezagutu zen. Diputatuen Kongresuko Mahaia, Ezker Abertzaleak, Aralarrek, Eusko Alkartasunak eta Alternatibak osaturiko koalizioak talde parlamentario propioa izatearen aurka agertu zen. Biharamunean, erabakiaren aurkako helegitea aurkeztu zuen Amaiurrek baina alperrik. Ez dute talde propioa izango baina Auzitegi Konstituzionalera joko du Amaiurrek.

Herri batzarrerako deia

Usurbilgo Ezker Abertzalea udal aurrekontuen inguruan lanketa sakona egiten ari da eta horren berri dato-



ABENDUAREN 15EKO ARGAZKIA IZAN ZEN ONDOKOA.

rreren abenduaren 29an osteguna herriari aurkeztu nahi dio.

Herri batzarra 19:00etan izango da Artzabalen eta nahi duen oro bertara joan daiteke.

Presoen aldeko mobilizazioak burutu dira egunotan

Euskal preso politikoen eskubideen alde, Donostiako Ibaetako campusean baraualdi astea antolatu berri du Egin Dezagun Bidea bilguneak. Abenduaren 12tik 18ra, zazpi egunez, besteak beste, alderdi politiko, sindikatu, gizarte eragile edota herri mugimenduetako ordezkariak baraualdiak egin dituzte. Eta hainbat mobilizazio burutu dira lantoki eta udalerrietan.

Hilaren 12an sindikatuen txanda izan zen. Egun horretan, LAB sindikatuko kideek hainbat ekimen burutu zituzten Euskal Herriko eskualdeetan. Tartean, Buruntzaldean. Lasarte eta Usurbilgo LABeko delegatuak Michelin enpresa atarian bildu ziren. Modu horretan, urtarrilaren 7an euskal preso politikoen eskubideen alde Bilbon deituta dagoen mobilizazioari atxikimendua adierazi zioten, baita egun horietan Ibaetako campusean burutzen ari ziren baraualdiei ere.

Elkarretaratzea Usurbilen

Abenduaren 16an alderdi politiko eta erakundeek hartu zuten baraualdien

lekukoa. Besteak beste, Foru Aldundiak eta Bilduk erakundeetan dituzten hauteskiek 24 orduko baraualdia burutu zuten. Azaroaren 29an Egin Dezagun Bidea taldekoen eskutik Bilduk Usurbilgo Udaleko osoko bilkuran aurkeztu eta udalbatzak onarturiko mozioarekin bat eginez, gobernu taldeko ordezkariak eta zenbait herritarrek, joan den ostiral eguerdirako udaletxe aurrean deitua zegoen elkarretaratzean parte hartu zuten. Eskuetan, urtarrilaren 7an Bilbon burutuko den mobilizazioaren atxikimendu kartelak zituztela.

Urtarrilaren 7an, Bilbon

Baraualdi asteko mobilizazioen ostean, Egin Dezagun Bidea bilguneak asteotarako beste bi hitzordu nagusi deituak ditu. Batetik astekari honekin batera argitaratu dugun gehigarrian adierazi moduan, presoen eskubideen aldeko Olentzeroren kalejira ospatuko da larunbat honetan.

Bestalde, Egin Dezagun Bideak deituta, urtarrilaren 7an Bilbon Euskal Herri mailako mobilizazioa burutuko da euskal preso politikoen eskubideen alde. 17:30etan abiatuko da, "Eskubide guz-



NORBANAKOAK ETA KOLEKTIBOAK, ASKO DIRA URTARRILAREN 7KO DEIALDIAREKIN BAT EGIN DUTENAK.

tiakin euskal presoak Euskal Herrira" lemapean. Norbanako zein eragileek hitzorduari atxikimendua adierazteko aukera dute oraindik, kolosalaizangoda.info web orrialdean. Usurbildik Bizkaiko hiriburura joateko autobusa antolatuko dute. Beti bezala, alde zuzenetik ohiko lekuetan izena eman beharko da.

Juan Karlos Alduntzin, Ingurumen Diputatua

“Arazoa, erre behar ez dena erretzea da”

Ikusmina sortu zuen abenduaren 15ean Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketarako diputatu eta GHK-ko presidente Juan Karlos Alduntzinek Sutegin eskaini zuen hitzaldiak. Usurbil Zero Zabor taldekoek antolatutako ekitaldiak auditorioa bete zuen. Datorren sei hilabeteko moratoriari buruzko hitzaldiak titular bat baino gehiago utzi zituen.

“Izugarrizko lana dugu denok. Denon lana eta indarra beharko da. Benetako egia jakinarazi behar da. Hondakinen egiarekin erantzun behar diegu, gezurretan ari direnei”, datozen sei hilabeteotarako erronka nagusi hau betetzeko nahia agertu zuen Juan Karlos Alduntzin Ingurumen eta Lurralde Antolaketarako foru diputatuak, abenduaren 15ean Sutegin eskaini zuen hitzaldian. Kultur etxeko auditorioa bete zuen Usurbil Zero Zabor (UZZ) bilguneak antolatutako ekitaldiak.

UZZ-ko kideek moratoriari buruz hitz egiteko gonbidatu zuten Alduntzin. Bezperatan jazotako gertakariak ordea, tarte nabarmena izan zuten hitzaldian. Gipuzkoako Hondakinen Konsorzioak (GHK) datozen sei hilabeteotarako Zubietako errauste plantaren oinarritzko proiektua eteteko harturiko erabakiarekin, Alduntzinen hitzetan, urte erdiko epe berri bat ireki da orain. Bere esanetan, dirudienez, “azken egunetan esan ezin den hitza”; ekainaren 30era arte indarrean egongo den “luzamendu edo moratoria hemen da”.

Sei hilabete hauen garrantzia hitz hauekin nabarmendu nahi izan zuen Alduntzinek. “Une honetan jokoan asko dugu, gerra irabazteko oso modu egokian gaude”, zioen. Baikor agertu zen herritarren aurrean. Gogorarazten zuenez, herritarren osasun eta ingurumena errespetatzen duen “alternatiba badago, badugu. Bilketa sistema ez da arazo bat. Arazoa, erre behar dena ez erretzea da”.

Aholku Batzordea sortzeko asmoa

Datozen sei hilabeteko tarte honetan, hondakinen kudeaketaren inguruko



ABENDUAREN 15EAN SUTEGI TXIKI GERATU ZEN.

hausnarketa, eztabaida bultzatu eta informazioa zabaltzeko asmoa dute. Ildo horretatik, urtarrila erdialdera, Konsorzioak Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Aholku Batzordea sortu nahi du. Bertan, Alduntzinen esanetan, “Mankomunitateak eta gizarte mugimenduak egoteko aukera” egongo da.

Informazio eta eztabaida prozesu honen bukaeran, “posizio kontrajarriak badaude”, herri galdeketa burutzea ere ez dute baztertzen. Baina hilabeteotan, aurka dituztenak konbentzitzeko aukera badela deritzo. “Konbentzitutako ditugu. Irtenbide ona, denon artekoa izan behar du”, zioen Alduntzinek.

Konpostatzearen aldeko apustua

Abenduaren 22an biltzekoa da berriz, Gipuzkoako Hondakinen Konsorzioa. Bertan besteak beste, Sutegiko hitzaldian Alduntzinek iragarri zuenez, hondakinei

loturiko tasen gaia ahotan hartuko dute. 2012rako aldaketak txertatzeko asmoa du GHK-k. “Hondakin organikoa ondo biltzen duenari gaizki biltzen duenaren erdia kobratuko zaio, urtariletik aurrera”, adierazi zuen Alduntzinek.

Tarifak bakarrik ez, hondakin organikoa ahalik eta gehien birziklatzea bultzatu nahi dute Konsorzioetik. Horretarako, herritarrek autokonpostajea egitera animatu nahi dituzte, “zirkuitutik” ahalik eta organiko kopuru handiena kendu asmoz.

Lapatxeko planta gainezka dela jakinik bestalde, konpostatzen ez den gainerako organikoa, oraingoz, Nafarroara edota Itsasura (Lapurdi) eramaten jarraituko dute. Baina Alduntzinek iragarri zuenez, Gipuzkoak konpost gune berri eta handiago bat izango du. 2.012an eraiki, urtebete beranduago zabaldu eta Bergaran kokatuko dena.

Berrogeitik gora udal, bilketa eraginkorragoaren alde

Alternatiben bidea jorratzeko Aprest agertu dira jada, Gipuzkoako berrogeitik gora udal. Herrialdeko “lau udalerritik hiruk, bilketa sistema eraginkorragora aldatzeko hautua egin dute. Erabakia hartua dute”, baieztatu zuen hitzaldi egunean ingurumen alorreko diputatuak. Hondakinen kudeaketaren alorrean, Usurbil eredugarritzat jo zuen eta zioenez, “orain denon ardura da, zuek erakutsitako bidea, beste herriei

erakustea”. Hondakinen gaiari dagokionean, erakunde bakoitzak zer eskuimen dituen ere gogorarazi zuen. Batzar Nagusiei hondakinen kudeaketari buruzko planifikazio lana egitea dagokie. Baina Alduntzinen esanetan, “hondakinen kudeaketaren eskumena, Udaletan dago”. Hondakinen arazoa konpontzeko bi erakundeon arteko zubi lana egiteko deia zabaldu zuen GHK-ko presidentek, “ia irtenbide adostu bat emateko gai garen”.

Ziurrenik, ez da planta bakarra irekiko. Ingurumen diputatuaren esanetan, halako gune gehiago eraikitzeko leku bila dabilta. Ez dute baztertzen ezta, “zabortegietan interbentzioak egitea”. Bere esanetan, krisiak zabor tona gutxiago sortzea eragin du, eta honenbestez lekuon “bizitza pixka bat luzatu daiteke”. Neurri guztiok, hondakinak ez erretzera bideratuak daudela gogorarazita, gure mugetatik kanpo diotena gogora ekarri zuen Alduntzinek Sutegiko hitzaldian: “Europar adituek argi diote. Ekonomiaz ari direnean, hondakinak ezin direla erretzen segi eta baliabide bezala tratatu behar direla diote”.

“Bide onetik atera nahi gaituzte”

Urteotan, errausketaren aldeko apustua egin izan dutenen balorazioa ere egin zuen Alduntzinek. Irtenbide bideragarrien aldeko apustua egiteko interes falta egozten die, ekonomikoki bidera ezintzat jotzen duen errausketaren aukera babesten dutenei. Baita udalen eskumenak errespetatu gabe, irtenbidea hasieratik aukeratu, inposatu eta urteotako plangintza horri begira egin izana ere. Ingurumen diputatuaren esanetan, helburua sorturiko hondakina bera izan beharrean, “tratamendua zen, errausketa bera”, errauste planta. Nahiz gaineratu zuenez, “ondo egiten ari ez zirela” jakin. Gipuzkoa zatitzeko arriskuan jarri dutela ere adierazi zuen Alduntzinek.

Egitasmoaren oinarritzko proiektua GHK-ko karguak berri bezperatan hartzea horren adibide gisa jarri zuen ingurumen diputatuak. Bere esanetan, “GHK berria osatu eta aurkako iritzia izango zuela jakinik” hartu zuten aipatu erabakia.

Errausketaren aldekoie zuzenduta, GHK-ko presidentek zioenez, “errausketa defendatzen dutenek ez dute erantzun, ondo egin daitekeena, zergatik egin daitekeen gaizki”. Hedabideetan kaleratu izan diren informazioekin herritarrak nahastu nahi izatea, eta alternatibarik ez dagoen mezua hedatzea egozten die errausketaren aldekoie. “Bide onetik atera nahi gaituzte”, gogorarazi zuen.

Gipuzkoa Zero Zabor pozik, Konsorzioak hartu duen erabakiarekin



“EZINA EKINEZ EGITEN DELA IKUSI AHAL IZAN DUGU” DIO GZZ-K.

Pozarren hartu eta txalogarritzat jo berri du Gipuzkoa Zero Zaborrek (GZZ), joan den astean Gipuzkoako Hondakinen Konsorzioak (GHK) Zubietako errauste plantaren oinarritzko proiektua sei hilabetez etete harturiko erabakia. Eurek moratoria gisa ulertzen dutena ailegatu da, eta orain, “herritarren ongizatea lehentsi eta ingurumen osasungarri batean bizitzeko eskubidea bermatuko duten erabakiak erdiesteko garaia da”. Itxaropentsu, gogorarazten dutenez “gaur esan dezakegu, Zero Zabor proiektua Gipuzkoan gauzatzea gertuago dagoela helburua lortzetik, ez lortzetik baino” eta erraustegiak suposa dezakeen zentzugabekeria ageriago dagoela gaineratzen dute. Urteotan eginiko lanaren emaitza nabarmendu nahi izan dute prentsa ohar bidez, “berriz ere, ezina ekinez egiten dela

ikusitako erabakia”.

ikusi ahal izan dugu”. Herritarrei ere zenbait hedabide “egiten ari diren manipulazioarekin” kontuz ibiltzea ohartarazi nahi diete GZZ-tik.

Erreakzioak

Azken egunotako gertakarien aurrean erreazio gehiago izan da. Gipuzkoa Zero Zabor bidean jarriko duten hondakinen bilketa sistemak jartzeko aurrera pauso handia eman dela nabarmendu du Ezker Abertzaleak. Beste Gipuzkoa bat posible dela eta errausketaren aurrean alternatibak badirela gogorarazi dute. Alternatibak ere, Konsorzioak harturiko erabakia txalotu du. Erraustegia konponbidea ez dela adierazita, alternatiba ekologikoak badirela gogorarazi dute prentsa ohar bidez. Sostengarritasuna enpresa handien interes ekonomikoen gainetik jarriko duen eztabaidarako ordua ailegatu dela diote.



Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

IAITETXEA - TABERNA
BELARTZA

943 37 60 82

Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Atsedan egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN

Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

Bildu udal gobernu taldeak 2012ko udal aurrekontuen zirriborroa prest du

Urtea amaitzera doa baina Bilduk zuzentzen duen udal gobernu taldeak dagoeneko prest du 2012ko udal aurrekontuetarako zirriborroa. Prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, "zirriborroa datozen egunotan helaraziko diegu beste udal taldeei, eta beraien ekarpenak aurkezteko epea ireki ondoren, eta eztabaidarako tartea kontuan izanda, urtarrilerako aurrekontuak borobilduak eta finkatuak izango ditugula pentsa dezakegu".

Usurbilgo Bilduk aditzera eman duenez, "jakitun gara garai zailak direla, eta noski, krisi egoerak eragina izango du aurkeztuko ditugun aurrekontuetan. Izan ere, diru iturrien murrizketa nabaria izango da eta bestalde, azken orduko ezusteko batzuk -uholdeek sortu dituzten kalteak hainbat herri bidetan, adibidez- isla izango dute 2012ko aurrekontuetan. Dena dela, horren guztiaren gainera, aurrekontu aurrerakoiak eta herriaren beharrei erantzuna emateko helburuarekin diseinatutako plangintza bat proposatuko dugu".

Zirriborroa datozen egunotan helaraziko diete beste udal taldeei, "eta beraien ekarpenak aurkezteko epea ireki ondoren, eta eztabaidarako tartea kontuan izanda,



DATOZEN EGUNETAN HELARAZIKO ZAIE GAINONTZEKO UDAL TALDEEI.

urtarrilerako aurrekontuak borobilduak eta finkatuak izango ditugula pentsa dezakegu. Noski, prozesu honetan ere Usurbilgo herriarekin konpartitu nahi ditugu eta herriari aurkeztuko dizkiegu".

Ekarpenak egiteko aukera

Urtea bukatu aurretik Herri Batzarra ere deitu dute "eta bertan herritarrek parte hartzeko aukera izango dute, Bildu udal taldearen aldetik behar diren zehaztasun, argibide eta azalpenak izango dituzte eta iritziak eta ekarpenak trukatzeko aukera ezin hobea izango da", prentsa oharrean adierazi dutenez.

Abenduaren 22an, plenoa

Ez-ohiko udalbatza plenoa egingo da ostegun honetan, arratsaldeko 18:00etan.

Urtarrilaren 11n, Kultura Aholku Batzordea

Gabonetako oporraldiaren bueltan elkartuko da berriz ere Kultura Aholku Batzordea. Arratsaldeko 18:00etarako egin dute deialdia eta udalbatza pleno aretoan elkartuko dira. Besteak beste, kultur arloko dirulaguntza deialdia izango dute aztergai.



Ostiral honetan

sabel dantza erakustaldia

Einean Guraso Eskolak udazkenaz geroztik abian dituen ikastaroetako baten, sabel dantza eta dantza modernoaren saioetan parte hartzen dutenen erakustaldia burutuko da ostiral honetan, abenduaren 23an, Sutegin. Koreografiar arduratu eta taldea zuzentzen duen irakasle Warda Mallalen eskutik, aipatu ekimenean parte hartzen duten ikasleek ordubeteko saioa eskainiko dute kultur etxeko auditorioan, 17:30-18:30 artean. Einean Guraso Elkarteak antolatutako ekitaldirako sarrera doakoa izango da.



17:30EAN HASIKO DA SABEL DANTZA ERAKUSTALDIA.

Odol emaien

2012ko egutegia

Abanduaren 8an ospatu zuten Odol Emaien Eguna. Dagoeneko, urte berriko egutegia ere zehaztu dute Usurbilgo odol emaien elkartek. Hauxe izango da: urtarrilak 2 astelehena, martxoak 5 astelehena, maiatzak 7 astelehena, uztaialak 9 astelehena, irailak 3 astelehena eta azaroak 5 astelehena. Anbulatorioan, ohiko ordutegian.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

• PUBLIERREPORTAIA • **USURBILZEN**

Trukalariak

Usurbil Zero Zabor

ALKARTASUNA

Usurbil
OSASUNA, ATZEA, AITIA

Usurbilgo
Urdala

ERREMOLATXA SALDA ERRUSIARRA, HOTZA NAHIZ BEROA

Osagaiak: aurretik egositako erremolatxa kilo erdi, litro bat barazki salda edo ura, oliba olio, ospina pixka bat, gatza, piperrautsa eta, nahi izanez gero, esne-gain likidoa.

Olio berotzen jarri eta azala kendu ondoren zatitutako erremolatxa ontzira bota. 10 minutu inguru su bigunez berotu. Aurretik berotutako salda, gatza eta piperrautsa gehitu eta 15 minutu inguru su bigunetan kuzinatzen utzi. Ondoren, sutatik kendu eta epeltzen denean irabiagailutik pasatu.

Hotz ala bero

Erremolatxa salda errusiar hau hotz ala bero har daiteke.

Salda hotza jan nahi ezker, irabiaturako zopa 3 orduz hozkailuan edukiko dugu. Ondoren, oliba olio edo esne-gain likido



ERREZETA EGOKIA, EGUBERRI HAUETARAKO NAHI IZATERA.

koilarakadatxo bat gainerik botaz banakako kaikutan zerbitzatuko dugu.

Kaikuan edo ontzi handian

Salda beroa nahi izan ezker, salda beroari oliba olio edo esne-gaina gehitu eta goilare

batekin irabiatu. Ondoren, ozpinetan izan dugun zati luze txikitik moztutako lonbardari ozpin soberakina kendu eta zopan bota. Banakako kaikutan edo ontzi handi batean zerbitzatu.

On egin!

Trukean, berrerabiltzeko jostailua opari

Erosi, erabili eta bota orde, trukatu eta berrerabiltzea, horixe bultzatu ohi dute urte garai honetan, Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteko kideek. Larunbatean bosgarrenez ospatu zuten hain zuzen, Jostailu Erabilien Azoka. Nabarmenezkoa da, beste behin, herritarrek ekimenerako zenbat produktu utzi dituzten.

Itxura, tamaina eta kolore guztietako panpinak, puzzleak, automobil txikiak... Denetarik aurki zitekeen, Hitz Ahokoek larunbat goizean frontoian jarri zituzten mahaletan. Baina aipatu moduan, produktuok ez zeuden salgai eta ez ziren lantegietatik zuzenean ekarritako gaiak. Jostailu guztiak alde aurretik erabiliak zeuden, usurbildarrek abenduaren 17an ospatu zen azokarako

utzitakoak ziren. Erakusgai zeuden baina ezin ziren erosi. Azokarako jostailuak utzi zituztenek soilik eskura zitezketen; eurek zuten bakarrik, bertan zeuden beste produktuekin trukatzeko aukera.

Eguraldi nahasiari aurre eginez, herritar ilara ederra zegoen frontoian eguerdi partean, trukeko prest. Azokako aldarriari kasu eginez, hilaren 17an "trukea jolas" bihurtu zen.

Mainstream Crew taldea

Joan den larunbateko Jostailu Erabilien Azoka une batez eten zen, hip hop emanaldi bat ikusteko. Frontoian jarria zegoen oholtza gainean, Gaztelekuko eskutik, Mainstream Crew taldeak koreografia ikusgarri bat eskaini zuen. 15-16 urte inguruko Orio edota Zarautzeko gazteek parte hartzen



MAINSTREAM CREW TALDEAK
GIROTU ZUEN JOSTAILU AZOKA.

dute taldean, tartean, baita usurbildar batek ere; Nekane Larrañagak. Abenduaren 26an Sutegiko oholtza gainean dantzatzeko prest izango dira berriz, 14-18 urte arteko gazteei zuzenduriko "Lotsagabe" antzezlanaren emanaldiaren baitan.

Julian Txikiren argazki gehiago azaldu dira

Aldizkari honekin batera, Zaloa Arnaizek osatu duen egutegia jasoko duzue, 2012 urteari dagokiona. Herriko zuhaitzak izango dira egutegi berriko protagonistak. Duela bi urte, ordea, Julen Zuazabeitia Errasti *Julian Txikiren* argazkiekin osatu zuen 2010eko egutegia. Herriko

apaiza izandakoaren senideek ia 2.000 argazki utzi zituzten Usurbilgo Udalaren eskuetan eta horiek baliatu zituen Zaloa Arnaizek 2010eko egutegia osatzeko garaian. Pasa den astean, *Julian Txikiren* anai bat izan zen NOAUA!n. Etxean gordeta zituen bi kutxa ekarri zituen gure bulegora. Usurbilgo argazki eta

negatibo gehiago azaldu dira, beraz, eta orrialde hauetan dituzue horren erakusgarri diren hainbat irudi. Oraindik ezin esan zehazki zein garaikoak diren, argazkietan azaltzen direnak nortzuk diren. Gutxinaka osatzen joan beharko den lana. Bitartean, goza ezazue irudiok.



Herria eta herritarrok, Julian Txikiren begietan



Argazkiak: Julen Zuazabeitia Errasti, *Julian Txiki*.

Larunbatean amaituko da Hurbilago San Silvestre herri lasterketan izen emateko epea

Abenduaren 31n bigarren ez ospatuko den Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketan izen emateko azken egunak dira hauek. Larunbat honetan, abenduaren 24an itxiko du antolakuntzak apuntatzeko epea. Iaz bezala zozketak izango dira parte hartzaileen artean. Eta noski, lehiakortasun kutsurik gabe burutuko da proba, jai giroan.

Bueltan da berriz, herri merkataritza eta ostalaritza biziberritzearen aldeko martxa. Astebete eskas geratzen da, II. Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketa ospatzeko. Hitzordua iazko bera izango da. Ekimenean parte hartu nahi duten herritarrek, abenduaren 31n arratsaldeko 17:00etarako Mikel Laboa plazan egon beharko dute. Handik abiatuko da eta, Kaxkoa bitan zeharkatuko duen lau kilometro inguruko ibilbidea.

HURBILAGOREN OHARRA

Egunotan apuntatu behar da, proba egunean bertan ez baita apuntatzeko aukerarik izango

Aipatu moduan, proban parte hartu nahi duten herritarrek izena aldeztu aurretik eman beharko dute, noaua.com web orrialdean dagoen loturan klikatuta, edota Hurbilago elkarteko establezimenduren batera joanda. Izen emateko azken eguna, larunbat hau izango da. Interesdunek egunotan apuntatu beharko dute, proba egunean bertan ez baita apuntatzeko aukerarik izango.

San Silvestre eguneko herri lasterketan parte hartzen dutenek, proba amaitu ostean Hurbilagok burutuko dituen zozketetan sarituak izateko aukera izango dute.



ABENDUAREN 31N, LASTERKETA ARRATSALDEKO 17:00ETAN HASIKO DA.

Kamisetak berrerabili

Adin guztietako herritarrak irten ziren lasterka duela urtebete ospatu zen estreinako edizioan. Harrera jendetsua izan zuen Hurbilago Elkartek antolatu zuen herri lasterketaren lehen edizio hark. Orduko hartan, izen ematearen truke kamiseta bana jaso zuten parte hartzaileek.

Aurten esperientzia errepikatze-

tan diren parte hartzaileei zuzenduriko oharra helarazi nahi dute antolatzzaileek.

Iaz lasterketarako espresuki prestatu eta parte hartzaileek soinean jantzi zuten Hurbilagoren kamiseta berrerabiltzera deitzen dute. Halere, lasterketan lehen aldiz irteteko asmotan direnentzat, kamiseta sorta bat prestatzeko asmoa dute antolatzzaileek.

Hurbilago elkarteko zozketa lasterketa amaieran egingo da

Asteotan Hurbilago elkarteko establezimenduren batean erosketaren bat egiten duten herritarrek, norbere izen abizen eta telefono zenbakia jartzeko aukera dago txartel batzuetan. Datu pertsonalak idatzita, txartel horiek saltokietan dauden kaxetan sartu daitezke.

Hala egin duten herritarrek adi, asteburu bat Orduñako bainu etxean igarotzeko zozketan parte hartzen ari baitira. Sarituaren izen abizenak,

abenduaren 31n ezagutuko dira, San Silvestre herri lasterketa amaitu ostean.

Abenduak 31, larunbata

Ordua: 17:00h.

Lekua: Mikel Laboa plaza.

Ibilbidearen luzera: 4 kilometro inguru.

Antolatzzailea: Hurbilago Usurbilgo Ostalari eta Merkatarien Elkartea.

Babesleak: Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritza.

Emakumeei zuzenduriko tailerrek jarraipena izango dute 2012an

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Zerbitzutik “Emozioak lantzen” eta “Harremanak eta espazio propioa” ize-neko bi tailer jarri dira martxan udazken honetan. Nabarmetzeko moduko harrera izan dute, hurrenez hurren emozioak modu positiboan baliatu eta norbere espazioaren eta harreman afektiboak lantzea helburu zuten bi ekimenek. Herriko hogoetik gora emakumeek parte hartu dute. Tailerrok herritarren aldetik izan duten erantzuna ikusita, 2012ko lehen hiruhilekoan behintzat jarraipena ematea erabaki du Udalak.

Urtarriletik martxora luzatuko diren saio hauetan parte hartzeko izen ematea zabalik izango da, hilaren 5era arte, 657 707 279 telefono zenbakian edo berdintasuna@usurbil.net helbidera e-mail bat bidalita.

Zenbait aldaketekin, hona hemen urte berrian jarraipena izango duten aipaturiko bi tailer hauei buruzko informazio gehiago:

Harremanak eta espazio propioa: oreka baten bila

Edukia: tailer honetan espazio propioa eta harreman afektiboak landuko dugu: nola sentitzen gara gure espazio propioan, nola harreman afektiboetan (bikotea, familia, lagunak), zeintzuk dira gure espazio erreserbatuak, eta zer partekatu nahi dugu.

Gidaria: Nagore Aranburu, psikologoa.

Eguna: astelehenak.

Ordua: 17:00-19:00.

Tokia: Bake Epaitegi atzeko lokala.

Hizkuntza: euskara.

Emakumeak eta maitasuna: berdintasunetik maitatu

Edukia: maitasunari buruz hausnartuko dugu, maitatzen nola irakasten diguten, maitasun erromantikoaren ideia, zer nolako fantasia eta espektatibak ditugun, mitoak eta sinesmenak. Eredu patriarkalak, rol eta genero estereotipoen bidez, maitatzeko modua guztiz baldintzatzen du. Gure maitatzeko modua aztertzea garrantzitsua da.



PEPA BOJÓ PSIKOLOGOA
OSTEGUNETAN IZANGO DA
BAKE EPAITEGI ATZEKO LOKALEAN.

Askotan galdu, desagertu, oparitu, dependentzia izan edota gehiegi babes-tuz maitatzeko ditugun modu hauek aztertu eta plazer, askatasun, osasun, osotasun eta aberastasunetik norberak bere lekua eta errekonozimendua aurkitzea garrantzitsua da.

Gidaria: Pepa Bojó, psikologoa.

Eguna: ostegunak.

Ordua: 14:30-16:30.

Tokia: Bake Epaitegi atzeko lokala.

Hizkuntza: erdara.

Sexu aholkularitza gune berria zabalduko da urtarrilean

2012an sartzearekin batera Usurbilek Sexu Aholkularitza Gunea izango du. Urtarrilaren 10ean zabalduko da. Hortik aurrera, hasiera batean behintzat, astearte arratsaldero bi orduz egongo da Sexune elkarteko kide den Elena Jimenez sexologoa. Gune berria, Gizarte Zerbitzuetako egoitzan kokatuko da.

Aldez aurretik hitzordua eskatuta, herritarrek tarte horretan aholkularitza zerbitzu berrira jo ahal izango dute, astearte arratsaldetan. Informazioa, formazioa, aholkularitza sexologikoa, gaian sakontzeko liburu gomendagarriak, gogoetarako

baliabideak, orientazio sexuala, sexunortasuna, desiraren inguruko zalantzak, harremanetan zailtasunak... Gune berriak gai hauei lotuta eskainiko duen zerbitzua zabala da.

Gizarte bidezkoagoaren bila

Herritarrek egin ditzaketen proposamenei ere irekia egongo da. Guztia, Elena Jimenez sexologoaren esanetan, helburuok betetzeko: “Usurbilgo biztanleak pertsonen arteko harreman errespetagarriak, arduratsuak, gozamenean oinarriturikoak eta egoiak izan ditzaten lortzea da, ondorioz, gizarte parekidea, solidarioagoa eta bidezkoagoa lortuz”.

Zerbitzu berriari buruzko zehazta-

sun gehiago, urtarrilaren 13ko NOAUA!-n jasoko duzue, Sexu Aholkularitza Guneako arduradun Elena Jimenez sexologoari eginiko elkarrizketan.

Sexu aholkularitza gunea

Ordutegia: asteartero, 17:00-19:00 (aurretik hitzordua eskatu behar da).

E-posta: sexuaholku@usurbil.net

Telefono zenbakia: 697 919 516.

Helbidea: Kale Nagusia, 43 behea (Gizarte Zerbitzuetako egoitza).

Eskaintzen den zerbitzua: informazio, formazio eta sexologia alorreko aholkularitza.

Nori zuzendua: adin guztietako herritarrei.

Denboraleari aurre eginez, jende ugari elkartu zen Santo Tomas azokan

Hotza eta euria egin arren, jende ugari ibili zen Santo Tomas azokan. Jendea frontoi inguruan, eta sagardo zein babarrun ekoizleak lehian. Izan ere, etxeko sagardo eta babarrun onena zein den erabaki ohi da Santo Tomas azokan. Aurten, 48 izan dira lehiaketara aurkeztu diren babarrun ekoizleak. Eta 21, sagardozaileak.

Epaimahaiaren aburuz, babarrun onena Lertxundi baserrikoa izan zen. Jose Miguel Begiristain aginagarra izan zen txapela eraman zuena. Bigarren saria ere Aginagara joan zen. Ibai-Ertz etxeko Manuel Aizpurua izan zen bigarren saria eskuratu zuena. Eta hirugarren saria Fidel Balerdik irabazi zuen, Usasku baserrikoak (Kalezar).

Sagardo ekoizleen artean, EgiOLETA baserrikoak (Kalezar) izan dira aurten nagusi. Zubietako Zugasti baserrikoentzat izan da bigarren saria eta Olano Eneakoa (Kalezar) izan zen epaimahaiaren ustez hirugarren sagardo onena. Olano Eneakoak, ordea, ez ziren saria jasotzera bertaratu.

Sagardo eta babarrun dastaketa

Aurten, lehen aldiz, animaliak ere izan dira eta umeak pozarren ibili ziren Askatasuna plaza inguruan. Baina azokaren muina frontoian egon zen. Epaimahaiak sagardo onena aukeratzen zuen bitartean, lehiaketara aurkeztutako sagardoak dastatzeko aukera izan zen. Sagardo Eguneko antolatzaileak fin aritu ziren lanean, sagardoak partitzen.



LEHIAKETAKO SAGARDOA DASTATU AHAL IZAN ZEN SANTO TOMAS FESTAN.

Beste protagonista batzuk ere izan ziren Santo Tomas ospakizunean.

Usurbiltzenek postu bat izan zuen, Udarregi ikastolakoek eraikin berriari buruzko informazioa zabaldu zuten eta errifa zozketa bat ere egin zuten.

Udarregi ikastolako ikasleek, ordea,

gozoak saltzen aritu ziren, ikasturte amaierako bidaiarako dirua bildu nahian.

Talogileak ere, lan eta lan aritu ziren. Eguerdi partean, ilara luzeak zeuden taloa erosteko eta baita Atxega jauregiko babarrun krema dastatzeko ere.

Maila oneko sagardoa eta babarruna



BABARRUN LEHIAKETAN,
LERTXUNDI BASERRIKOENTZAT
IZAN ZEN TXAPELA.



SAGARDO LEHIAKETAN,
EGIOLETA BASERRIKOAK
IZAN ZIREN NAGUSITU ZIRENAK.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elizkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Irisasi BTT taldeak bizikleta martxa antolatu du urtarrilaren 29rako

Andatza mendizaleen elkarte izateaz gain, bilgune beretik aurrerantzean mendiko bizikleta ere bultzatuko dute. Irisasi BTT talde berria osatu dute, baita lehen hitzordua finkatu ere. Urtarrilaren 29an Irisasi eta Andatza zeharkatuko duen bizikleta martxa antolatu dute.

Goizeko 9:00etan hasi eta 11:00etarako itzultzea aurreikusten dute. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, "32 kilometroko ibilbidea prestatuko du Irisasi-Andatza mendian zehar, bertako eta kanpoko jendea erakartzeko asmoz".

Deialdia

Martxan jarri berri den Irisasi BTT bilgunea 30 lagunek osatzen dute. Guztiek urtarrila amaierako hitzordurako gonbita



32 KILOMETROKO IBILBIDEA
PRESTATU DUTE.

luzatzen dute, "parte hartzera, laguntzera edota, ikusle gisa, egun horretan Andatzako bideetan txirringulakariak ikusteko". Hilabete barru burutuko den martxa heldu artean, hona hemen antolakuntzatik helarazi nahi duten mezua: "bizikletak prestatu!".

Yoga eta sabel dantza ikastaroak kiroldegian

Aerobik, spinning, pilates, gimnasia edota tonifikazio ikastaroekin batera, yoga eta sabel dantzetan trebatzeko aukera egongo da kiroldegian, urte berria hastearekin batera. Saioak urtarrilaren 16an hasi eta ekainaren 30era arte luzatuko dira.

Interesa duen edonork proba egiteko aukera izango du egunotan: urtarrilaren 9an, sabel dantzan goizeko 10:00etan eta eguerdiko 12:00etan. Eta urtarrilaren 12an, 16:00etan eta 18:30ean yoga probatzeko aukera egongo da.

Zilarrezko domina Oiana Blancorentzat

Asteburuan Qingdaon (Txina) jokatu den judo txapelketan zilarrezko domina irabazi du Usurbil Judo Klubeko kide Oiana Blancok. 80 puntu gehiago eskuratu ditu eta Olinpiar Jokoen hitzordua gero eta gertuago du.

Bestetik, Xabier Urangak eta Eduardo Lacak gerriko beltza lortu dute eta Wasquehalen (Frantzia) Nerea Sanzek (-48 kg) zilarrezko domina eskuratu zuen. Aiora Arrillagak (-48 kg), Nerea Arrutik (-70 kg) eta Andoni Aizpuruak (-60 kg) ere parte hartu zuten.

Eskubaloiko errifa

zozketarekin, Saltxipira

Borja Pulido gazteari egokitu zaio Burteko eskubaloi errifa zozketa-ko azken saria. 1.721 zenbakidun errifaren jabeak, bi laguntzako bazkari edo afaria irabazi du Saltxipi jatetxean. Ohi bezala, ekimenean parte hartzen duten jatetxe eta errifak erosten dituzten herritarrei esker ona adierazi nahi diete eskubaloi taldeak biltzen dituen Usurbil Kirol Elkartetik.



BORJA PULIDO, SARIA ESKUETAN.

Usurbil FTko bazkidetza kanpaina

Zer egin behar da Usurbil FT-ko bazkide izateko? Caja Rural-Ipar Kutzaren sukurtsalean "Socio Usurbil FT K/K-n" 20 euro ingresatu eta izena eta bi abizenak adierazi. Haraneko tabernan ordainagiria aurkeztuz gero elkarteak ondo erregistratuko du eta dagokion oparia banatuko du. Erregistratuta dauden bazkide guztiek, 2011ko gabonetako zozketan parte hartuko dute UFT zenbakiarekin: 98480.

Abenduaren 26an, Miroitzen omenezko eskubaloi partidak

Asteburu honetan ez da ligaxkako partidarik jokatu. Baina abenduaren 26an astelehena, Miroitzen omenezko eskubaloi txapelketa jokatu da kiroldegian, infantil mailakoa.

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

ARRANDEGIA PELLO
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Agenda !!

Abenduak 23 ostirala

- Sabel dantza erakustaldia. 17:30etik aurrera Sutegin.

Abenduak 26 astelehena

- Mirotzen omenezko eskubaloi txapelketa, infantil mailakoa, 9:00etatik aurrera. Sari banaketa 20:00etan.

Urtarrilak 2 astelehena

- Odol ematea ambulatorioan, 18:00etatik 20:30era.

Urtarrilak 11 asteartea

- Kultura Aholku Batzordea, 18:00etan udalbatza pleno aretoan.

Goardiako farmaziak

Abenduak 22, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 23, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 24, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 25, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 26, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte

Abenduak 27, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 28, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 29, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 30, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 31, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.
www.noaua.com webgunean 2011ko egutegia

Aginagak irabazi du elkarteen arteko mus txapelketa

Aginaga elkarteak nagusitu ziren Usurbilgo elkarten arteko XIV Mus Txapelketan. Ibaiondo elkartearen jokatutako finalak aurreko larunbatean. Mahaspildegi elkarteak bigarren geratu ziren eta Peña Pagolakoak hirugarren.

Txapeldunak

Alberto-Abad (Aginaga).

Txapeldun ordeak

Lertxundi-Lertxundi (Mahaspildegi).

Hirugarrenak

Beristain - Martija (Peña Pagola).

Laugarrenak

Izagirre - Uribe (Peña Pagola).

Bestalde, antolatzaileek eta elkarte guztiek txapelketa honetan lagundu duten guztiari eskerrak eman nahi dizkiete: Aialde-Berri Sagardotegia, Alamandegi Jatetxea, Aginaga Sagardotegia, Araeta Sagardotegia, Aratz Erretegia, Atxega Jatetxea, Barazar Jatetxea, Bordatxo Taberna, Irigoien Jatetxea, Iruin Sagardotegia, Maykar Jatetxea, Olarrondo Jatetxea, Patri



AGINAGA ELKARTEKOENTZAT
IZAN DIRA AURTENGO TXAPELAK.

Jatetxea, Saizar Sagardotegia, Saltxipi Jatetxea, Txapeldun Taberna, Txirristra Taberna, Urdaira Sagardotegia eta Usurbilgo Udala.

Parte hartzaileak hauek izan dira:

Andazpe: Agirresarobe-Goenaga, Alkorta-Torregarai. **Eguzki:** Guadix-Guadix, Lopez-Calvo. **Ibai-Ondo:** Urroz-Estevez, Etxeberria-Irazusta. **Peña Pagola:** Izagirre-Uribe, Beristain-Martija. **Aitzaga:** Olaizola-Aizpe, Pulido-Sarasola. **Yoko Garbi:** Eneko-Urtzi, Xabier-Mikel. **Aginaga:** Alberto-Abad, Ramon Pikabea - J.J. **Erroizpe:** Arrospide - Matxain, Alustiza - Unanue. **Mahaspildegi:** Lertxundi - Lertxundi, Alkorta - Bordagarai.



MAHASPILDEGI ELKARTEKOAK
FINALERA IRITSI ZIREN.



PEÑA PAGOLAKOAK HIRUGARREN
IZAN DIRA AURTEN.



Aliprox

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

TAXI 24h

Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisu salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teitua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilta Usurbil inguruan. Fidantzaz eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela. Tlf.: 626 347 914.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukalde, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukalde, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat alokatzen da Etxealdian. 2 logela, sukalde, egongela. Eguzkitsua eta berritua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudak pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau legetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaixoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzan jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrea, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau legetako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m². 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailan. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaixoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Opel Corsa 1.4 Twinport Ecotec 66kw/90 cv salgai. Aleazio llantak 16, aurreko lainotako argiekien. Aire egokitu, ABS eta parrila. Gidari, kopilotu eta alboetako airbag-a. CD 30 MP 3 bolantean aginte-tresnarekin. Margotu berria eta neumatik berriekin. Gidari bakarra izan du orain arte. 88.500 km. Prezioa: 7.250 euro. 678 332 646
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m²-ko garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150

- sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

LANPOSTUAK

Lan-eksaerak

- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari euskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Lan egin nahi baduzu, deitu zenbaki hauetara: 680 483 164 / 607 454 879
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinatzate? Hala bada, pasa zaituz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eksaerak

- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakume eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsalde, edo zerbitzari moduan lan egin nahi nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteenekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteriztan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urte-8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenerik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritza aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketak titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123

- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetarako. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteok orduka zainzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zainzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zainzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zainzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634 409 888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689 93 73 38. Jesus Mari.
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48
- Olenzeroari esku badiozu telebista berri bat, neuk telebista zaharra (baldin badil, noski) gustora erretiratuko nituzke ikasle pisu batentzako. Tlf.: 675 71 72 67. Irene
- Arratoki mestizo arrazako txakur bat oparitzen da. Urte eta erdiko, oso leiala. 666 454 930
- 3 metroko bambu kañaberak trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu).
- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost sutako sukalde labarekin. Egoera onean eta oparitzeko, premiazkoa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke 616 260 451.
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Mesede, eraman gaitzazue. 635 714 030.
- Belarritakoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Masajeak ematen ditut: reflexologia, siatsua, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkari antolatzeko eta prestatzeko etxetean, elkarre gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo inxtaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- WII-a eta PSP-a kopiatzen da, Internetetik jaitzitateko joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. Softwarea aldatzen da baina garrantia mantenduz. 635 729 637.
- Ezkuntzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkuntza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak gure gelako zorion festaxora etorri ziren guztiei! Primeran pasa genuen larunbatean neskak eta mutilak elkarrekin jolasean. Hurrengoan ere berrituko elkartuko gara!



Zorionak Anne eta Jon! Abenduaren 26an izango da zuen urtebetetzea, zorionak eta muxu handi bana, Helene, aita eta amaren partez!



ADI: datorren astean ez da NOAUARIK izango; hurrengo alea urtarrilaren 13ko datarekin aterako dugu. Beraz, zorion-agurrak edo bestelako oharrak urtarrilaren 9rako astelehena ekarri behar dira, edo e-postaz igorri: erredakzioa@noaua.com

Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarren zerbitzura

<http://twitter.com/noaua>

<http://www.facebook.com/noaua>

SAIL OFIZIALA

DONOSTIA ZINEMALDIA FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

TXINTXUA FILMS-ek aurkezten du ASIER ALTUNAREN film bat

Maiolen Lujanbio, Andoni Egoña, Jon Sarasua, John Miles Folley, Joseba Zuloaga, Miren Amuriza

BERTSOLARI

GIDOIA eta ZUZENDARITZA Asier Altuna. PRODUKZIOA Marian Fernandez eta Asier Altuna. KOPRODUKZIOA ITB Elena Gozalo. EDIZIOA Laurent Dufrêche. IRUDIA Gatzka Bourgeaud. ZUZENERO SOINUA Pablo Irujo eta Joseba Otxoa. MUSIKA Herrikojak

Abenduak 22, osteguna arratsaldeko 19:00tan. Sutegin.

Sarrera: Sarrerak 5€ (Noaua!ko egoitzan, Txiribogan eta egunean bertan) Noaua!ko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik

Marije

Arropa denda



amarillolimon

skunkfunk



AURKITU ZURE ESTILOA MARIJEN



IKKŠ
I CODE
2 TWO PARIS
PRIVATA



III
Jmond Aramortoguy
Lois
PART TWO
nora izagirre



Etxebeste 3- 943 36 11 06 USURBIL



BESTEbat